

“ Indarkeria ez da naturala. Gizartearen baitan ikasten da eta gizartearen bitartez irakasten da”

Emakumeen aurkako indarkeria orokortutako jokaera da. Gizarte mota guztietan, kultura guztietan eta klase sozial guztietan dago. Etxean, kalean, lanean; bake garaian eta gerra garaian...

Gure gizarteak jasaten duen jokaera da, bai etxean baita lanean ere, gizonak emakumearekiko duen ustezko nagusitasunaren izenean beti ere.

Indarkeria mota hau ikusezina da eta orain dela urte gutxi hasi gara emakumearen askatasun eta duintasunaren kontrako atentatutzat jotzen.

Emakumeen kontrako indarkeriari buruz ari garenean, GENERO INDARKERIAri buruz ari gara eta kulturaren garrantzia azpimarratu nahi dugu; izan ere, argi utzi behar da genero indarkeria gizarteak eraiki duela eta ez dela naturak berez duen ezaugarria. Kontzeptu honen baitan, emakume izateagatik soilik jasaten diren tratu txar psikologikoak, esplotazio sexualak eta eraso fisikoak koka ditzakegu, besteak beste.

Honelako ekintzen aurrean, askotan, emakumeek ez dute jakiten nola erantzun; baina, gaur egun, gero eta handiagoak eta gehiago dira erantzun eskuzabalak, elkartasunezko mezuak eta jokaera arduratsuak. Jokaera hauek, hain zuzen ere, harreman aberatsak sortzen dituzte eta emakumeak ardatz dituen bake kultura eraikitzen dute.